

## Euskal kultura 1979, Raúl Guerra Garridoren arabera

Herenegun liburu batekin topo egin nuen: «El año cultural español 1979». Aurkibidera begiratu eta «La cultura en el País Vasco» izeneko kapitulu bat ikusi nuen, eta derrefente erosi.

Raul Gerra Garrido ezagunarena da artikulua. 10 orrialde ditu (liburu berean «La cultura en Andalucía»k 27). Makina bat gauza berri ikasi dut nik artikulua horri esker. Adibidez:

- Eusko Kontseiluko Kultur Kontseilaritza, sozialisten garaian, intelektual ekipo batek osatua omen; orain, aldiz, nazionalisten garaian, teknokraten eskutan omen dago.
- Kontseilaritza honek dituen «asuntos pendientes» zeintzuk diren ere jakin ahal izan dugu: Antzerki erakusketa ibiltaria, Picassoren «Guernica»ren itzultzea, Zinemaldi monografikoak, Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Gasteizko Sexologi Astea. Ez, noski, Alfabetatzerik, Komunikabideen arazorik eta horrelakorik. Noski.
- EAJren kultur politika ere badakigu orain: «para el PNV la cultura se reduce a un único objetivo: euskera. El idioma lo es todo».
- Euskerazaintzari buruz ere badugu informaziorik (Euskaltzaindiaz baino gehiago, bestalde). «Kontra-akademia» honek gipuzkera aukeratu omen du; euskalki hau «garbiagoa» delako hautatu omen du. Bigarren nobedadea, neretzako. Hirugarren bat ere: zeintzuk ote Euskaltzaindiaren eta Euskerazaintzaren arteko diferentziak? Hona: «La primera denomina al idioma euskara y al país Euskadi; la segunda, euskera y Euzkadi respectivamente». Hona hitz gutitan dena esanda.
- UZEI zertan dabilen bagenekiela uste genuen. Baina ez. Guerra Garridok dioenez, «está empeñado en la consecución de una enciclopedia temática similar a la británica».

Raúl Guerra Garridoren artikuluari esker ikasi dugu, baita, euskal kulturaren barruan bakoitzari berea ematen. Esate baterako:

- Aldizkarietatik aipatzea merezi dutenak «Euskadi Sioux», «Ere»

eta «Kantil» dira. Baina ez «Punto y Hora», «JAKIN», «Karmel», «Anaitasuna», «Zeruko Argia». Ez eta 1979an bertan sortu ziren «Común», «Muga», «Urrats», «Urraspide» aldizkariak.

- Ikastolari, Alfabetatzeari, Euskalduntzeari, UZEIri, UEUri, euskal kulturaren balantze batetan zer toki dagokien ere bada-kigu orain: aipamen soila, eta hori ere oin-oharretan. Ez letra handitan, noski.
- Literaturaren eremuan ere bakoitzari berea eman zaio. Hots, literatura «euskeriko»ari 12 lerro (eta beste 7 oin-oharretan); eta «producción literaria en castellano» delakoari, gutienik 48 lerro.
- Bakoitzari berea heriotzetan ere. Euskal kulturarentzat heriotzerik mingarriena, Aguirre Alcaiderena izan da: «Su muerte es la mayor pérdida de la cultura vasca en este año». 21 lerro eskaintzen dizkio. Bat bakarrik ere ez, ostera, urte berean hildako Jokin Zaitegi, Jon Oñatibia eta Mikel Zarate idazle eta kultur animatzaileei.
- 1979ko euskal Zinemak, Teatroak, Musikak, Bertsolaritzak, Arte plastikoez ez dute merezi izan erregistratuta gelditzerik ere.

Besterik ere bada, baina buka dezagun. Nik ez dakit Raúl Guerra Garridoren artikulua honek gure kultur egoeraren ikuspegi zuzena ala okerra ematen duen. Nik dakidana da ez dela hori nik hamar orritan balioztatuko nukeen euskal kulturgintza. Kanpoko irakurleek zer eritzi aterako duten? Oin-oharren bidez jakingo dute behintzat euskaraz ere idazten dela. ■ *Joan Altzibar.*

## «Fisika. Hiztegia»

Eta azkenean atera du UZEIk bere lehen hiztegia: «*Fisika. Hiztegia*». Egun gogoangarria eta pozgarria Euskal Herriarentzat 1979ko abenduko 27a. Hego Euskadiko lau hiriburuetan antolatua zen liburuaren aurkezpena.

UZEIren lan finaren berri baguenok zain zain egon gara noiz hiztegi horiek eskutan hartuko. Bi urte eta erdi iragan dira elkargo horrek lanari ekin zionetik. Ia hiru eta erdi JAKINEk «*Natur Zientziak. Hiztegia*» argitara eman zuenetik, hiztegi sail honi hasiera emanek.

UZEIk atera duen lehenengo honi beste hiztegiek jarraituko diote. Politika, Kimika, Matematika uda aurretik kaleratuko dira. Geroxeago Ekonomia, Psikologia, Linguistikaren txanda izango da. Martxan daude gainera, eta batzuk oso aurreratuta, Teknologia, Geologia, Biologia, Medikuntza, Zuzenbidea, Soziologia, Artea, Literatura, Filosofia, Erljioa. JAKINEk atera zuenarekin batera 18